



28. zenb.  
2018ko abendua  
Doako argitalpena



**Kalapie eta Bizikume elkarteek eta dozenaka emakumek jaso dute II. Guztiok Mugituz saria "Gaur nire txanda da" ekimenagatik**



**"Bizikleta bidezko mugikortasunak guztiaren % 25 gainditzen duenean, txirrindulari emakumezko gehiago daude gizonezkoak baino"**



**Itziar Alonso-Arbiol  
Erkuden Almagro**



# Kalapie eta Bizikume elkarteek eta dozenaka emakumek jaso dute II. Guztiok Mugituz saria “Gaur nire txanda da” ekimenagatik



Mugikortasun iraunkorra eta inklusiboa sustatzen duten ekimenak saritzeko helburuarekin sortu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Guztiok Mugituz saria. Sariaren bigarren edizio honetan Kalapie eta Bizikume elkarteek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz, sustatutako ‘Hoy me toca a mí – Gaur nire txanda da’ ekimena saritu da. Programa 2018an garatu da lurraldeko emakumeak bizikleta erabiltzera bultzatzeko helburuarekin, mugikortasun iraunkorragoa, osasungarriagoa eta inklusiboagoa sustatzearren.

Mugikortasuneko diputatu Marisol Garmendiak abenduaren 13an eman zien saria ekimena sustatu duten bi elkarten ordezkari, Itziar Alonso-Arbioli (Kalapie) eta Erkuden Almagrori (Emakumeak bizikletan – Bizikume). ‘Gaur nire txanda da’ ekimenaren baitan proposatutako jardueraren batean edo jarduera batzuetan, bai prestakuntza-saioetan bai bizikleta-bideen sarean egindako irteeretan, parte hartu duten dozenaka emakume izan ziren ekitaldian.

Saioan saritutako ekimenari buruzko xehetasunak eman zituzten eta, horrez gainera, azaldu zuten Mugikortasuneko departamentuak sari

hori zergatik eman dion “berritzailea eta aitzindaria den, ehunka emakumeri parte hartzeko aukera eman dien” eta lurraldeko errealitateari, aldatzeko helburuarekin, aurre egin dion proiektuari, Gipuzkoako foru bidegorrietan bizikleta erabiltzen dutenen % 84 gizezkoak baitira, eta emakumeak % 16. Edizio honetan hitzaldia eman zuten hirigintzara aplikatutako genero-ikuspegian espezializatutako Inés Novella arkitektoak. Mintzaldi interesgarria izan zen, eta alde horren oinarriak dauden hainbat arrazoiz azpimarratu zituen, hiriak emakumeentzat inklusiboagoak izateko mugikortasun paritarioagoa bideratzeko moduari buruzko oinarriko hainbat printzipio ere azaltzeaz gainera. Jarraian, Mugikortasuneko departamentuaren ikuspegi adierazten duen eta ekimenak eurentzat zer-nolako garrantzia izan duen azaltzen duten parte-hartzaile batzuen hitzak jasotzen dituen bideo baten bidez laburbildu zen ‘Gaur nire txanda da’ ekimena.

Ekitaldiari amaiera emateko saria eman zien Marisol Garmendiak Itziar Alonso-Arbioli eta Erkuden Almagrori, eta hirurek hitz batzuk esan zituzten bertan zeuden guztien aurrean.



**Marisol Garmendia.**

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa foro-diputatua

## **“Emakumea eta txirrindularia naizen aldetik, plazer bat da gaur sari hau ematea; hunkituta nago”**

Saria Kalapie eta Bizikume elkartei eman ondoren, Marisol Garmendiak hunkituta hitz egin zien bertaratuei. Horixe eman zuen aditzera bere hitzen bidez, “garrantzizkoa da niretzat, emakumea eta txirrindularia naizen aldetik, sari hau bi elkartei ematea, ondo asko baitakit zuek guztiok, bizikletan ibiltzera irteten zareten emakumeok, zaudetela atzean”, justifikatu zuen.

Azpitarratu zuen emakumeak direla garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak, eta bizikleta bidezko mugikortasunean, aldiz, % 20ra ere ez direla iristen. “Zentzugabea da 80-20ko alde hori. Zuei esker galtzen du zentzua, eta amaiera emango diogu. Bizikletan ibiltzean bidez eta lagunartez gozaten dugu. Ekimen honen bidez emakume asko atera ahal izan dira bizikletan ibiltzera eta seguruago eta babestuta sentituz gozatzera. Horregatik bakarrik merezi izan du ekimena hasieratik babesteak”, esan zuen. Bestalde, Guztiok Mugituz sariarekin “ikusarazi nahi dugu emakumeak aske sentitzen eta beldurra galtzen, eta eurenak ere badiren esparruak berreskuratzen ari direla”, azpitarratu zuen.

Garmendiak, aukeraz baliatuz, ziurtatu zuenez, “datorren urtean irteera gehiago egingo dira, sail honetan egunez egun lan egiten dugunon helburuarekin bat datorren programaren baitan”. Adierazi zuen Kalapie eta Bizikume elkarteek ekimen hau aurkeztu zutenean “pixkana hazten joango zen zerbaít” izango zela pentsatu zutela. “Baina, pixkana haztetik asko haztera igaro da. Arrakasta itzela izan da”. Eta arrakastaren meritua ekimenaren buruan egon diren eta ekimenean parte hartu duten emakumeena dela esan zuen. “Eta zuei guztioi esker izan da. Pozten nau zuek guztiok esan ahal izateak ‘gaur nire txanda da, neuk irten behar dut bizikletak eman dizkidan adiskideekin’. Zain izango nauzue hurrengo irteeran”, esan zuen amaitzeko.



**Inés Novella**

Hirigintzara aplikatutako genero-ikuspegian espezializatutako arkitektoa

## **“Bizikleta bidezko mugikortasunak guztiaren % 25 gainditzen duenean, txirrindulari emakumezko gehiago daude gizonezkoak baino”**

Datuak eta estatistikak eskaintzen dituzten hainbat azterlanetan oinarritu zuen bere esku-hartzea Inés Novellak, “hiriak orain dela ehun urte diseinatzen ziren bezala diseinatzen dira oraindik ere, gizonezko gehienena den mugikortasun pendularrean (etxetik lantokira eta lantokitik etxera, funtsean) pentsatuz”, egiaztatzeko. Arkitektoak adierazi zuen horrek esan nahi duela ez zaiola behar bezala erantzuten hain errutinazkoa ez den mugikortasunari, ez zaiela erantzun egokia ematen askoz ere gehiago diren joan-etorri laburrei, hain zuzen ere, halakoak izanik enplegua eta zaintzak bateratzen dituzten emakume gehienena. Azpitarratu zuen zaintzaren mugikortasunaren ehuneko lanarena baino handiagoa dela berez, eta Gipuzkoan txirrindularitzan generoen artean dagoen aldea leku gehienetakoaren antzekoa dela egiaztatu zuen arren, itxaropenaren atea zabaldu zuen, “txirrindu bidezko mugikortasunak guztiaren % 25 gainditzen duen leku, txirrindulari emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino” esan baitzuen.

# Itziar Alonso-Arbiol. Kalapie elkarteko kidea eta 'Gaur nire txanda da' programaren sustatzailea eta arduraduna



**"Helburua emakumeak ahalduntzea da, bizikletan ibiltzera inork deitu gabe joan daitezen"**

Itziar Alonso-Arbiol 18 urte zituenetik ibiltzen da bizikletan, "eguneroko jardunean eta aisialdian, etenik gabe, nahiz eta inoiz ez dudan alde batera utzi bizikleta bidezko turismoa ere". Holandan eta Estatu Batuetan bizi izan zen eta bizikletan mugitzen zen "gauza guztietarako". Orain dela hiru urte itzuli zen, eta hemen "gauza bera egiten jarraitzea erabaki nuen; bizikletan joaten naiz lanera, erosketak egitera, zinera... Eta kirola egiteko ere erabiltzen dut". Testuinguru horretan sartu zen Kalapie elkartean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko departamentuak ematen duen Guztiok Mugituz saria aurten jaso duen 'Gaur nire txanda da' ekimena Emakumeak bizikletan – Bizikume elkartearekin batera garatu duen elkartean.

## Nola sortu zen programa?

Orain dela bi urte Kalapie elkarteak, bizikletaren 200. urteurrena ospatzeko, 200 emakume bizikletan ekimena proposatu zuen. Foru Aldundiak, Bizikume elkarteak eta Donostiako Emakumeen Etxeak bat egin zuten proiektuarekin, eta denon artean antolatu genituen 200 emakume bizikletan elkartu zituen elkarretaratzea eta beste hainbat ekintza, eta hortik sortu zen 'Gaur nire txanda da'.

## Zertan datza?

Gizonezko askok dute izendatuta bizikletan ibiltzera joateko egun finko bat. Guk ere nahi genuen beste guztia alde batera utzi eta bizikletan ibiltzeko egun bat izan. Aurtengo udan bide berdeetan hainbat irteera, mundu guztiarentzako moduko ibilbideak, egitea proposatu genuen. Trebetasuna hobetzeko prestakuntza-saioren bat edo beste ere egin genuen, eta ibilbide bakoitzean mekanika-tailer bat



egin genuen bidean sortzen diren arazoei erantzuteko, esate baterako, gurgila zulatzen bada edo katea ateratzen bada. Asmoa zen emakumeak aktibatzea bizikletan gehiago ibil daitezen, bai egunerokotasunean bai aisialdian. Horretarako, gure asmoa izan zen emakumeek ibilbideak ezagutzea, bizikletan ibiltzera irten nahi duten beste emakume batzuekin elkartzea, ustekabe txikiei erantzuteko gai izatea eta makina beldurrik gabe menderatzea.

## Nola joan da lehenengo edizio hau?

Lau ikastaro eta sei irteera antolatu dira, horietako lau Plazaolako, Bidasoko, Urolako eta Arditurriko bide berdeetatik. Guztira 166 emakumek parte hartu dute, eta ez hori bakarrik, irteerak egiten jarraitzeko interesa sortu da. Gizonezko batzuk ere etorri dira gurekin, parte-hartzaileen senarrak eta semeak. Egia da egiten direla emakumeentzat bakarrik diren irteerak ere, baina hauek ez dira halakoak. Emakumeari irtetea egokitzen zaio, eta bakoitzak erabakitzen du bakarrik, alabarekin, semearekin edo senarrarekin irten nahi duen.

## Programarekin jarraituko al da aurrerantzean?

Interesgarria da eskaintzarekin jarraitzea emakume gehiago aktibatzeko, baina asmo nagusia emakumeak ahalduntzea da, irteerak inork deitu gabe antola ditzaten.

## Zer sentitu duzu Guztiok Mugituz saria jasotzean?

Benetan atsegina izan da, batez ere programan parte hartu duten emakume guztien lana eta ahalgina ikusarazteko balio izan duelako.

# Erkuden Almagro. Emakumeak bizikletan - Bizikume elkartearen sustatzailea

**“Funtsezkoa da neskak inplikatzeko bizikletan ibiltzen diren emakumeen komunitate batek funtzioa dezan”**

Bizikleta da Erkuden Almagroren pasioetako bat. “Milaka ordu” eskaini dizkio, txapelketa askotan parte hartu du eta munduko txirrindularirik onenekin partekatu du errepidea. Txapelketen mundua alde batera utzi zuenean konturatu zen “bizikletan ibiltzera atera ahal izateko inguruko gehienak gizonezkoak” zirela. “Ez da sexu-borroka bat, baina erritmoak, plana eta baita elkarriketak ere, mutilenak ziren. Jabetu nintzen bizikletaren munduan, beste kirol batzuetan ez bezala, ia ez zegoela neskarik”. Orain dela lau urte ‘Emakumeak bizikletan – Bizikume’ abian jartzea lortu zuen, “aspalditik nerabilen buruan proiektua”.

## Zer da Emakumeak Bizikletan – Bizikume?

Bizikleta gogoko duten nesken komunitate bat da. Emakumeak Bizikletan elkartearen webgunea abian jarri zenetik, Estatu osoko mila neska baino gehiago atxiki zaizkigu. Lurralde bakoitzean klub bat sortu da Bizikumeren ereduari jarraituz, jatorrizko lurralde-kluba baita, lehenengo Nafarroakoa eta gero Gipuzkoakoa, eta orain ordezkartzak Bizkaian eta Araban ere baditu.

## Zein da Bizikumeren eredu hori?

Hastapeneko talde bat eratzen da, eta lehenengo saioa doakoa da. Bertan premiak eta zaletasunak aztertzen dira, eta BTTri buruzko prestakuntzari ekiten zaio: nola ibili hirian, mekanika... Ikastaro batzuk doakoak dira, beste batzuk ordaindu egiten dira, diru-laguntzen baitan dago hori. Errepietan ibiltzeko taldeak, mendian ibiltzekoak eta paseokoak daude, eta irteerak eta bidaiak egiten dira, asteburuetan beste klub batzuekin elkarretaratzeko ere egiten dira... Funtsezkoa da nesken inplikazioa, bereziki lurralde edo probintzia



bakoitzeko klub baten burua; komunitatea eratzekeo modua da.

## Nola inplikatu zineten ‘Gaur nire txanda da’ programan?

Kalapie elkarteko Itziar Alonso-Arbiol hasi zen Bizikume Gipuzkoa sustatzen, eta bizikletaren 200. urteurrena ospatzeko 200 emakume bizikletan elkartzea proposatu zigun. Proiektuarekin bat egin genuen bi erakundeok eta Emakumearen Etxeak. Denok ikuspegi bera genuen: gizonezkoek argi dute euren aisialdia, nahiz ehizera joateko nahiz bizikletan ibiltzeko. Emakumeentzat bigarren mailako zerbait da, eta hori aldatu egin behar da. Eskubide berbera dute euren aisialdia errespetatzen dadin. ‘Gaur nire txanda da’ ekimena zen bide horretan aurrera egiteko modua.

## Nola joan da ekimena zure ustez?

Espero baino askoz ere hobeto! Funtsezkoa izan da Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza. Diru-laguntzei esker ikastaroak doan eskaini ahal izan dira, eta hori lagungarria izan da neska asko animatzeko. Orain neska horietako askok dute bizikletarekin irteten jarraitzeko interesa, bai klubarekin bai euren kontura. Oso ongi joan da.

